

XOLA

ETA AMERIKETAKO IZEBEA



BERNARDO ATXAGA

MARRAZKIAK: MIKEL VALVERDE

HOLAXE BIZI DA



XOLA



– I –

Xola zoriontsu bizi zen, oso zoriontsu. Gogoak ematen zionean ateratzen zen etxetik, eta gogoak ematen zion lekura joaten zen. Gero, gogoak ematen zionean, etxerako bidea hartzen zuen, batzuetan poliki eta beste batzuetan azkar, zer eskatzen zion gogoak.

Egun batean, bazihoan parkean oinez eta bi gazte hurbildu zitzaizkion. Batek mikrofonoa zeraman eskuan, besteak kamera handi bat bizkarrean. Kamerak argitxo gorri bat zeukan piztuta.

Kazetariak zirela jakinarazi zioten bi gazteek Xolari, eta *Parketik zuzenean* izeneko programa bat egingen ari zirela. Ea hitz batzuk esango zizkien.

Xolak gogoak eman zion bezala erantzun zuen. Baietz, hitz egingo zuela.

–Izena? –galdetu zion kazetariak mikrofonoa ahoaren pare-parean jarritz.

–Xola –esan zuen berak kamerari begira.

–Oso ondo, Tola. Ba...

–“Tola” ez, “Xola” –zuzendu zion berak duintasunez.

–Eskerrik asko zuzenketagatik –ekin zion kazetariak–. Esaguzu orain, azkar-azkar, zuzeneko programa batean behar den bezala: nola ikusten duzu zeure burua? Zer zara zu?

Pentsakor geratu zen Xola. Konprenitzen zuen bere irudia milaka telebista pantailatan zegoela une hartan, eta ez zuen txorakeriarik esan nahi.

–Aurrera, ba, Bola –animatu zuen kazetariak–. Zer zara zu?

–“Bola” ez, “Xola” –zuzendu zion Xolak duintasunez.

–Horixe baietz, jakina. Baina zuzenean ari gara, parketik zuzenean. Azkar samar, esan, zer zara zu?

Kamera zeraman kazetaria hurbil-hurbil jarri zitzaion.



Une hartan, Grogto telebistaren aurrean zegoen, Xolari begira. Bere txakurraren aurpegiak pantaila betetzen zuen. Pentsa eta pentsa ari zen, kopeta estututa, galdera hura gogoan: zer zara zu?

Duin eta dotore, Xolak ahoa zabaldu zuen.

–Txakurra naiz, eta librea!

–Librea! –errepikatu zuen kazetariak. Harrituta zegoen. Urteak zeramatzan *Parketik zuzenean* programarako elkarrizketak egiten, eta hura zen halako hitz indartsua entzuten zuen aurreneko aldia–. *Rara avis!* –hots egin zuen miresmenez.



–Bai, hori da. “Rarevich”. “Xola Rarevich” –esan zuen Xolak. Izan ere, gustatu egin zitzaion izen hura, “Rarevich”.

Grogok eskuak burura eraman zituen eta bere txakurra zuzentzen hasi zen.

–Ez, Xola! Ez da “Rarevich”. Ez da izen bat, baizik eta latinezko esaera bat, *rara avis*, “txori arraroa”. Izaki bitxi eta bakanei buruz esaten da. Librea zarella esan duzunez, eta hori ezohiko erantzuna iruditu zaionez kazetariari, ba...

Isildu egin zen kolpetik. Alferrik ari zen azalpenak ematen. Xola ez zegoen etxean, telebistako pantailan baizik, eta ezin zion aditu. Orduantxe, bigarren galdera egiten ari zitzaion kazetaria:

–Zergatik pentsatzen duzu txakur librea zarella?



Xolak bere kopetaren lehen plano eskaini zion kazetariari, galderaren aurrean arduratuta. Gero, bere arrazoiak adierazi zituen banan-banan.

–Gogoak ematen didana egiten dut. Gogoak ematen didana jaten dut gogoak ematen didan orduan. Gogoak ematen didan arte ikusten dut telebista. Gogoak ematen didana esaten dut. Gogoak ematen didanean ateratzen naiz kalera. Eta abar.

–Baina, era horretan, zure bizitza nahaste-borraste hutsa izango da! –hots egin zuen kazetariak.

–Maite dut nahaste-borrastea! –azaldu zuen Xolak begirik kliskatu gabe.

–Ba, mila esker, Dola! Hurren arte! –agurtu zuen kazetariak.

–“Dola” ez, “Xola”. “Xola Rarevich” –zuzendu zion berak, duin eta dotore.